

Bilbon esku-hartze artistiko bat egiteko proposamena Bilboko Itsas Museoan 2018

Proposamena Aurtenetxea Containers enpresak egin du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearekin, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoarekin eta Bilboko Udalarekin batera eta Bilbao Art District ekimenaren barruan gauzatuko da.

Esku-hartzea Bilboko Itsas Museoaren aurreko zabalgunean

Merkantziak itsasoz garraiatzeko erabili ohi diren **industria-edukiontzirekin** proposamen bat egitea da helburua. Edukiontzia Euskalduna zubiak eta itsasadarraren bi ertzek osatzen duten hiri anfiteatro guztitik ikusi ahal izango dira.

Edukiontzien neurriak honako hauek izan daitezke: 1 unitate “6mx2,5m” 2 unitate “3mx2,5mx2,5m” eta beste bat “2’40mx2mx2,12m.



Baluartea 1, 2, 3, 4 y 5. Leo Burge y Alberto Díez. 2013



All Iron. Mar de Dios y Miguel Puertas. 2014

Proposatzen dena da Arte Ederren Fakultateko ikasle guztiei zuzendutako deialdi baten bidez edukiontzia euskarri moduan erabil ditzakeen proposamen iragankor bat aukeratzea. Ekintza bukatzen denean, lekua egungo egoeran geratuko da berriro.

Proposamenetan planteatu beharko diren muntaia soluzioak edukiontzirekin egitekoak izango dira, eta horietan esku-hartzeko aukera egongo da. Esku-hartzeak, diren modukoak direla (pikturikoak, eskultorikoak, ikus-entzunezkoak, performatiboak, etab.), edukiontzien kanpoko aldean egin beharko dira nahitaez.

Proposamenaren arabera, edukiontzia kolore baten margotuta entregatu daitezke.

Edukiontzia muntatzeko lanak Aurtenetxea Containers enpresak gainbegiratu ditu eta bera izango da haiek behar bezala instalatzearen eta segurtasuna bermatzearen arduraduna. Halaber, enpresak berak hartuko du edukiontzia garraiatu eta muntatzeko lanen ardura.

Edukiontzietan esku hartzeko aukera egongo da, bai edukiontzia Itsas Museoaren

aurreko zabalgunean jarri baino lehenago, bai beranduago.

Kontuan hartuko da proposamenek esku-hartzea egingo den tokiko testuingurua, hau da, Itsas Museoaren aurreko zabalgunearen testuingurua aintzat hartzea eta Bilboko itsasadarrekin, bere berreskuratzearekin eta hiriarekiko loturarekin, portuari lotutako iraganarekin eta abarrekin lotutako gaiak lantzea.

Sarien zenbatekoak:

1.000€ aukeratuko den proposamen bakarrarentzat.

(Zenbateko horren barruan sartzen dira ordainsariak eta ekoizpen, garraio eta lekualdaketa gastuak)

250€-ko bi accesit beste bi proposamen finalistentzat.

Proiektuak banaka edo taldeka egin ahal izango dira, kontuan hartuta zenbatekoak proiektuko emango direla, eta ez parte hartzaile bakoitzeko.

Datak:

Apirilak 16: Proposamenak aurkezteko epea.

Apirilak 19: Proiektu aukeratuak ezagutaraziko dira. Maiatzaren 14tik 16ra: Proiektua muntatzea

Maiatzak 17: Proiektuaren inaugurazioa.

Proiektuaren iraupena: Urtebete baino gutxiago.

Proposamenak:



Paperezko Itsasontzia. Álvaro Aroca, 2017



Camino de Sirga. María de Viana & Xabier Dobaran, 2017

Dossierrek honako hauek eduki behar dituzte:

- Izen-abizenak, helbide osoa eta harremanetarako datuak (e-maila eta telefono zenbakia)
- Curriculum laburra
- Aurreko obraren erakusgarri diren argazkien bilduma (gehienez 10 argazki)
- Esku hartzea egiteko proposamena eta aurrekontua Euskarri digitalean (PDF formatuan) bidali beharko dira, gehienez 5 Mb izango dituzten artxiboetan, honako helbide elektroniko honetara: ecultural.fac.bellasartes@ehu.eus

Informazio gehiago: ecultural.fac.bellasartes@ehu.eus

Oharra:

Parte hartzaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak **“Esku hartzea Itsas Museoaren aurreko zabalgunean”** izeneko deialdiaren onuradunak aukeratzeko eta horien jarraipena egiteko sortuko den

UPV/EHUn fitxategi baten sartzeko. Datuak horretarako izango direla jakinarazten zaio Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 5. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Jakinarazten diogu, halaber, datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko edo horien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakeela. Horretarako UPV/EHUko DBLO segurtasunaren arduradunari idatzi bat igorri behar dio honako helbide honetara: UPV/EHU – Errektoregoa – Sarriena auzoa, z.g. 48940 Leioa (Bizkaia). Idazkiari bere identitatea egiaztatzeko dokumentuaren kopia ere erantsi behar dio. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUn Arautegia kontsultatu nahi izanez gero, interneteko helbide honetara jo dezake: www.ehu.es/babestu.

